



Amiantoaren biktimentzako funtsaren sorrera, azpiegituren hobekuntza, gigafaktoria eta digitalizazioa: EH Bilduren zuzenketa partzialak aurrekontuei

Madril | Azaroaren 5a. Euskal Herria Bildu Talde Parlamentarioak 30 zuzenketa partzial aurkeztu dizkio Espainiako Gobernuaren aurrekontu proiektuari, Hego Euskal Herriko lau lurraldeetarako beharrezko ekarpen ekonomikoak jasota. Gaur aurkeztutako proposamen sorta honako eskaera hauetan oinarritzen da, batez ere: *bateria elektrikoen gigafaktoria eraikitzea, 4.0 industriaren inbertsioak egitea, trenbide-azpiegitura zaharkituak gaurkotzea, bide-azpiegituretan eta euskal kostaldean hobekuntzak egitea, unibertsitatean plataforma digitalak garatzea eta euskarazko ikus-entzunezko hedabideen eduki eta baliabideak digitalizatzea.*

Aurrekontu proiektua hobetzeko eta zuzentzeko eskatzen dituen lurralde inbertsioen artean, Miñaoko Parke Teknologikoan (Araba) bigarren belaunaldiko bateria elektrikoen **gigafaktoria bat sortzeko eskaera** nabarmendu du EH Bilduk, balio-kate osoa bertan garatzeko –ekodiseinutik birziklatzeraino– eta Araba automobilgintzarekin lotutako trantsizio energetikoaren abangoardian kokatzeko. Nabarmentzekoa da, halaber, **amiantoaren biktimei kalte-ordainak emateko konpentsazio funts bat eratzeko proposamena**, erakundeek hamarkadetan ahaztutako kolektibo baten aldarrikapen historikoari erantzunez. Kongresuko Mahaian geldiarazitako eskaera desblokeatzea eta urteetako bidegabekeria arintzea premiazkoa dela jakinda, funts hori **25 milioi euroekin hornitzea** nahi du EH Bilduk.

Horrez gain, EH Bilduk azpimarra berezia jarri du **trenbide-azpiegitura zaharkituak berritzeko inbertsio zehatzetan eta aspaldidanik egiteke dauden proiektu estrategikoak** abian jartzean: Loiolako Erriberako aldageltokia eraikitzea dago horien artean; Euskotrenen Lasarte-Hendaia lineak eta Irun eta Brinkola lotzen dituen Renferen C1 lineak bat egiten dute bertan. EH Bilduk **20 milioi euro** eskatu ditu ETSren eta ADIFen arteko hitzarmenean aurreikusitako proiektua behingoz gauzatzeko. Halaber, ezkerreko indar subiranistak hainbat zuzenketa erregistratu ditu tren geltokien irisgarritasuna hobetzeko edota Santurtzi eta Bilboko Portuaren arteko trenak eragindako zarata eta eragozpenak murrizteko. EH Bilduk proposatutako inbertsio ekonomikoek, gainera, **euskal kostaldean jarduera konkretuak** egitea aurreikusten dute, Getaria, Bakio edo Plentzia bezalako herrietan egonkortze, hobekuntza eta egokitze lanak aurrera eramanez.

Bestetik, EH Bilduk 3 milioi euroko eskaera aurkeztu du Estatuko Aurrekontu Orokorretan **Sestaoko Labe Garaia**ren barrualdea birgaitzeko eta kudeaketa Udalari eta Eusko Jaurlaritzari lagatzeko, Bizkaiko aro industrialaren eta labe garaien aberastasunean oinarritutako proiektu bat sortzeko eta turismoa erakartzeko helburuarekin. Era berean, Pasai-Antxoko **Luzuariaga fabrika zaharraren eraikina eta lursailak** udalaren esku uztea galdegin du, udalak proposatutako kultur proiektua garatzeko asmoz.



Hezkuntzari dagozkion partiden artean, tresna eta plataforma digital berriak garatzera bideratutakoak dira nagusi, unibertsitatean irakaskuntza-berrikuntzako proiektuak bultzatzeko. **Euskarazko ikus-entzunezko eduki eta baliabideak digitalizatzeko bideratutako zuzenketek** ere garrantzia berezia dute EH Bilduren proposamenean; era horretara, edukiak errazago eskuratzea eta sektore berrietara iristea ahalbidetuko dietelako euskal hedabideei.

Azkenik, Euskal Herriko ezkerreko indar subiranistak proposatu du Nafarroako Foruzaingoko langileen erretiro-baldintzak beste polizia-kolektibo batzuenekin parekatzea. **EHUren Portugaleteko ingeniaria- eskola *Itsasgunea*** proiektu berrira egokitzeko inbertsioak **4,6 milioi eurotan** handitzeko ere eskatu du; energia berriztagarrietan oinarritutako eraikin iraunkorra eraikiko dute bertan, eta energia zein trantsizio klimatikoari buruzko prestakuntza zehatza eskaintzera bideratuta egongo da.